

# Ekintza-ikerketa partehartzailea euskararen hiztun aktibo bihurtzeko babesgune eta zubi-espazio<sup>1</sup>.

**Estibaliz Amorrortu  
Gomez**

*Deustuko Unibertsitatea*  
esti.amorrortu@deusto.es

**Jone Goirigolzarri  
Garaizar**

*Deustuko Unibertsitatea*  
jone.goirigolzarri@deusto.es

**Ane Ortega  
Etcheverry**

*Begoñako Andra Mari  
Unibertsitate Eskola*  
a.ortega@bam.edu.es

Sarrera data: 2021/6/11 – Onartze-data: 2021/7/26

**Laburpena.** Euskararen hiztun aktibo bihurtu nahi duten hiztun gazteen mudantza-prozesua (Pujolar eta González 2013) erraztu dezaketen espazioetan jarriko dugu arreta. Ildo horretan, ekintza-ikerketa partehartzailea (Greenwood eta Levin, 2006) eginda burutu den *Bilbo Handiko unibertsitate-ikasleen mudantza-prozesuak* izeneko proiektua proposatu nahi dugu espazio gisa, eta erakutsi proiektu hori, eta burutzeko sortu den komunitate epistemikoa (Estalella eta Sánchez Criado 2018), mudantza-prozesuak errazteko espazioa izan dela berez, bai babesgune (Puigdevall, Colombo eta Puigdevall, 2019; Hernández, Iñarra eta Altuna, 2021, zenbaki honetan bertan) bai zubi-espazio (del Valle 2001). Espazio horrek, proiektuaren diseinua eta helburua bera kontuan hartuta, baldintza mesedegarriak eman ditu eraldaketa-prozesuetarako, bai hizkuntza-praktikei dagokienez (aktibazioa), bai pertsonen subjektibotasunei dagokienez, gazteek izandako hausnarketa kritikoa prozesuari esker. Gazteen hizkuntza-ahalduntzerako eta eraldaketa-prozesurako funtsezkoak izan diren elementuak erakutsiko ditugu. • **Hitz gakoak:** gazteak, mudantza, ekintza-ikerketa partehartzailea, babesguneak, zubi-espazioak.

**Abstract.** We focus on spaces that can facilitate the shift for young speakers who want to become active Basque speakers (Pujolar & González 2013). In relation to this, we propose as a space a participatory action research project (Greenwood & Levin, 2006) entitled *Muda processes among University Students in Greater Bilbao*, showing that this project, and the epistemic community set up to carry it out (Estalella & Sánchez Criado 2018), has in itself been a space to facilitate the processes, both as a safe space (Puigdevall, Colombo & Puigdevall, 2019; Hernández, Iñarra & Altuna, 2021, in this same issue) and as a bridge space (del Valle 2001). This space, taking into account the design and purpose of the project itself, has provided favourable conditions for processes of transformation, with regard both to language practices (activation) and to people's subjectivities, thanks to the process of critical reflection of young people. We will show the key factors for language empowerment and the transformation process in young people. •

**Key words:** young people, muda, participatory action research, safe spaces, bridge spaces.

## 1. SARRERA

### I

Ugari dira Euskal Herri osoan zehar azken urteetan erabilera areagotzeko indarrean ipini diren ekimenak. Euskararen biziberritze prozesuari begira bereziki estrategikoa da gazteen aktibazioa indartzea, batez ere testuinguru nahiko erdaldunetan eta biztanleria handia biltzen duten hirietan. Zentzu horretan, Bilbo inguruko gazteek arreta berezia behar dute, zantzuak baitaude behin derrigorrezko hezkuntza amaituta askok euskara baztertzen, eta horrekin, gaitasuna galtzen dutela. Artikulu honetako egileek burututako aurreko ikerketa baten (Ortega, Amorrortu eta Goirigolzarri, 2016) gazteek eurek adierazi zuten Bilbo moduko hiri nahikoa erdaldunetan gazte hiztun berriek zailtasun handiak dituztela egunerokoan euskara erabiltzeko eta euskararen aldeko mudantza egiteko (Amorrortu, Ortega eta Goirigolzarri, 2017: 39-44). Baina euskararen hiztun berriez gain, Bilbon familian euskara ikasten dutenek ere sarri antzeko oztopoak aurkitzen dituzte, baita, ezberdintasunak ezberdintasun, testuinguru oso euskaldunetik Bilbora datozen gazteek ere.

Testuinguru honetan, eta gazteen erabilera areagotzeari begira, honako galderak egitea komeni da: zelan bizi dute Bilbo inguruko euskaldun gazteek aktibazio-nahia? Posiblea da Bilbo moduko testuinguruan mudantza-prozesu bat (Pujolar eta González 2013) burutzea? Zelan sortu daitezke baldintzak Bilbokoa moduko testuinguru erdaldunetan gazteek euskararen aldeko eraldaketa burutu dezaten?

Galdera horiei erantzuteko *Bilbo Handiko unibertsitate-ikasleen mudantza-prozesuak* izeneko ekintza-ikerketa partehartzailea burutu dugu, unibertsitate-ikasleekin batera. Ikerketaren helburua, mudantza-prozesuak sakontasunez ezagutzeaz gain, gazteei bere aktibazio prozesuan aurrerapenak egiteko baldintza mesedegarriak eskaintzea izan da, hau da, eraldaketa egiteko beharrezkoa duten kontzientzia soziolinguistikoa garatzeko eta hizkuntza-praktikak aldatzen hasteko espazio bat eskaintzea. Horretarako komunitate epistemiko bat (Estalella eta Sánchez Criado 2018) osatu genuen beren-beregi, hirugarren atalean azalduko denez. Taldean gazte gehienak Bilbo inguruko hiztun berriak badira ere, batzuk Bilboko etxeko euskaldunak dira, eta beste batzuk herri euskaldunetako mota ezberdineko euskaldunak. Guztiek daukate gutxienez gaitasun nahikoa euskaraz komunikatzeko eta denek erabili nahi zuten gehiago egunerokoan, eta helburu hori lortzeko onartu zuten ikerketan parte hartzea.

---

***Euskararen biziberritze prozesuari begira bereziki estrategikoa da gazteen aktibazioa indartzea, batez ere testuinguru nahiko erdaldunetan eta biztanleria handia biltzen duten hirietan.***

**Bereziki  
hizkuntza  
gutxituen  
testuinguruan  
babesguneak  
honela  
ulertu dira:  
gizarte-espazioak  
non hizkuntza  
gutxitua erabili  
nahi dutenek  
horrela egin  
dezaketen, hori  
egitea “normala”  
eta espero  
daitekeena dela  
ontzat ematen  
delako.**

Komunitate epistemikoak burutu duen ikerketa espazio egokia izan da gogoeta kritikoa garatzeko eta mudantza-prozesuan aurrera egiteko; izan ere, ikerketa babesgunea izan da gazteentzat eta zubi-espazio bezala funtzionatu du askorentzat, eraldaketa ikerketaren espaziotik beste espazio batzuetara eramatea ahalbideratu baitie.

## **2. MUDANTZA, BABESGUNEAK ETA ZUBI-ESPAZIOAK**

**I**

Hizkuntza gutxituen testuinguruan lehenetsuneko da hiztunak, hizkuntza jakiteaz gain, hiztun aktiboak izatea, hau da, egunerokoan erabiltzea. Zentzu horretan badira urte batzuk Euskal Herrian ere *mudantza* kontzeptua erabiltzen dugula bizitza-zikloan hiztunek euren hizkuntza-errepertorioan aldaketak egiten dituzten momentuei (Pujolar eta González 2013) erreferentzia egiteko. Hizkuntza-praktiketan ez ezik hiztunek bere burua aurkezteko eran ere aldaketak ekar ditzake mudantzak. Euskararen hiztun berrien kasuan, hizkuntza honen alde egiteko momentu erabakigarrien bezala honakoak aurkitu ziren (Ortega et al. 2016: 103-107; Amorrortu eta beste 2017; Puidgvall eta beste 2018): 1) testuinguru oso euskaldun batera bizitzen joatea, 2) bikote batekin hastera-koan, 3) guraso bihurtzerakoan, 4) sare berrietan edo jarduera berrietan sartzerakoan, eta 5) kontzientzia hartzean. Derrigorrezko hezkuntzako ikastetxea aldatzea eta unibertsitatean hastea ere mudantzarako aukera bezala agertu ziren.

Orain bizitza-uneei barik euskararen aktibazioa eta eraldaketa ahalbideratzen duten espazioetan jarri nahi dugu arreta, espazioaren kontzeptuak, hiztunaren hautu eta erantzukizun indibidualetan argia ipini ordez, talde-hautu eta erantzukizunetan ipintzea ahalbideratzen digulako. Hiztunek gizarte-harremanak espazio jakinetan dituzte, espazio jakinetan sentitzen dira seguru, ala ez, eta espazio jakinetan izan ditzakete sozializazio berriak eta euren hizkuntza-praktiketan aurrera-pausuak eman; gainera, subjektibotasunean, hau da, hiztun bezala sentitzen diren eran, aldaketak izan ditzakete eta horrek euren hizkuntza-portaeran eragin. Zentzu horretan, espazioak berebiziko garrantzia dauka mudantza-prozesuetan.

Bestalde, mudantza-prozesuen berri ematen duten hiztun berriek askotan “espazio seguru” edo “babesguneei” buruz hitz egiten dute. Bereziki hizkuntza gutxituen testuinguruan babesguneak honela ulertu dira: gizarte-espazioak non hizkuntza gutxitua erabili nahi dutenek horrela egin dezaketen, hori egitea “normala” eta espero daitekeena dela ontzat

ematen delako (O'Rourke eta Walsh 2020: 168, adibidez, irlandararako). Baina babesgunea ez da bakarrik hizkuntza gutxituaz hitz egitea espe-ro daitekeen espazioa. Puigdevall et al.-ek (2019: 128) aipatu dutenez, babesgunea hizkuntza-zuzentasun aldetiko arauak erlaxatu daitezkeen espazioa izateaz gain, norberaren burua, eguneroko bizitzan testuinguru konplexuagoetan aurkeztu aurretik, modu ezberdinean aurkezteko (edo aurkezten saiatzeko) espazio egokia ere bada: babesgunea den espazioak mudantza prozesua egiten laguntzen du eta legitimatzailea izan daiteke berez. Hiztun berriak bere eraldaketa prozesuan aurrerapausuak egiten baditu, espazio honetatik bizitzaren beste espazio batzuetara mugitzeko aukera gehiago izango ditu.

*Bilbo Handiko unibertsitate-ikasleen mudantza-prozesuak* izeneko ikerketa-proiektuak babesgune bezala funtzionatu du eta gazte askori ikerketaren espazioan egin duten eraldaketa beste espazio batzuetara aplikatzeko aukera eman die, ikerketaren espaziotik unibertsitatearen edo Bilboren espaziora jauzi egiteko aukera eman die, *zubi-espazio* bezala erabilia. Ikasketa feministetan aspaldi erabili den zubi-espazioa “mendekotasun-egoera baten eta ekitatea gertatu eta finkatu den beste egoera baten artean” ezartzen dena da (del Valle 2003: 146). Espazio horietan, ikaskuntza berriak ahalbideratzen dira, “sozializazio berriak” bizitzen dira, diskurtso eta praktika alternatiboak sortzen dira eta horiek pertsonen “boterea” ematen diete, hau da, zubi-espazioan ikasitakoak eta bizi izandako eraldaketak ahaldundu egiten ditu hiztunak, eta aldaketa horiek beste espazio batzuetara eramateko gai bihurtzen dira.

Azkenik, espazioei buruz jarduterakoan, kontuan hartu behar da espazioa, fisikoaz gain, sinbolikoa eta soziala ere badela. Lefebvreri (Baringo, 2013) jarraituz, espazioa produktu sozial bat da, eta prozesu historiko baten emaitza. Prozesu horretan, espazio jakin batean objektiboki gertatzen diren praktika espazialei, haren inguruan sortzen diren irudikapen sinbolikoei edo sortzen duen iruditeria sozialari buruzko gaiak nahasten dira. Horrela, espazioa ez dute osatzen bakarrik testuinguru soziolinguistikoari dagozkion elementuek, esate baterako, euskaldun kopuruak, edo erabilera ehunekoak; badaude beste elementu batzuk ideologiek, hizkuntza-balioekin eta arau sozialekin zerikusia dutenak, eta askotan aurreiritzi moduan funtzionatzen eta erabilera eragozten dutenak, adibidez, gazteen artean Bilbon euskaraz hitz egitea *frickya* dela pentsatzea. Espazio sinboliko eta sozial hori zelan osatzen den garrantzitsua da hiztunen hizkuntza-praktikak hobeto ulertzeko eta mudantza-prozesuetan gazteek izan ditzaketan zailtasun eta oztupoak aurreikusteko.

---

***Espazio sinboliko eta sozial hori zelan osatzen den garrantzitsua da hiztunen hizkuntza-praktikak hobeto ulertzeko eta mudantza prozesuetan gazteek izan ditzaketan zailtasun eta oztupoak aurreikusteko.***

**Aurretik  
ezagutzen  
ez ziren  
unibertsitate-  
ikasleekin talde  
bat osatu genuen,  
beren-beregi  
eurekin batera  
euskararen  
erabileraren  
inguruan  
hausnarketa  
egiteko, ezagutza  
eraikitze  
eta gehiago  
erabiltze  
saiakerak  
egiteko.**


Hurrengo ataletan Bilbo inguruko unibertsitate-ikasleekin batera burutu dugun ikerketa parte-hartzailea aurkeztuko dugu eta erakutsiko mudantzarako espazio egoki bezala funtzionatu duela.

### 3. IKERKETA-PROIEKTUA ESPAZIO BEZALA

**I** Bilbo Handiko unibertsitate-ikasleen mudantza-prozesuak izeneko proiektua ekintza-ikerketa parte-hartzailea (EIP, PAR ingelesez: *Participatory Action Research*) (Greenwood eta Levin, 2006) erabilia egin da. Metodologia horretan ikertzaileek aktiboki parte hartzen dute ikertu nahi dituzten fenomenoetan, eta partaideek (ikertzailekide deiturikoak) ikertzaile-rolan, beren praktikak behatuz, haien gainean hausnartuz, praktikak aldatzeko erronkak edo aldaketak planteatuz eta beren subjektibotasunetan eraginik dagoen aztertuz. Gure kasura ekarrita, aurretik ezagutzen ez ziren unibertsitate-ikasleekin talde bat osatu genuen, beren-beregi eurekin batera euskararen erabileraren inguruan hausnarketa egiteko, ezagutza eraikitze eta gehiago erabiltze saiakerak egiteko, *ikertu-ekin-hausnartu* prozesu ziklikoa erabilia. Proiektu osoan zehar egindako ikasketa-prozesu eta lanketa kontuan harturik, taldea komunitate epistemiko (Estalella eta Sánchez Criado 2018) bezala eratu dela esan daiteke (Ortega, Goirigolzarri eta Amorrortu, 2021). Komunitate epistemikoa ezagutza eraikitzen duen komunitate gisa ulertzen dugu, non ikerketa, zentzu zabalean hartuta, funtsezkoa den, eta non partaideek parte hartze aktiboa egiten duten, eurak protagonista diren fenomenoak ikertuz.

Proiektua hiru espazioetan burutu da: 1) ikerketan bertan, komunitate epistemikoan egin den lanketan, 2) unibertsitate testuinguruan eta 3) Bilbo hirian. Ondoko irudiak hiru espazioak irudikatzen ditu.

**Irudia: Proiektua burutu den hiru espazioak**



Lehen espazioari dagokionez, ikerketaren espazioari dagokionez, hain zuzen, hiru fase burutu dira orain arte. Lehen fasea 2018ko otsailean hasi zen, Deustuko Unibertsitateko (DU) eta Andra Mari Irakasle Unibertsitate Eskolako (BAM) 22 ikasleekin taldea osatu genuenean. Maiatza bitartean, lau ekintzen inguruan aritu ginen, beti lehendabizi bakar-kako gogoeta eginez, eta gero taldekakoa. Lehen ekintzan hizkuntza biografia landu zuten, bigarrenean haien hizkuntza-praktikak eta unibertsitateko hizkuntza-praktikak behatu zituzten, hirugarrenean nork bere erabilera unibertsitatean areagotzeko lehen erronka bat prestatu eta burutu zuen, eta laugarrenean prozesu osoan ikasitako dena kontuan hartuta bigarren erronka bat gauzatu zuten. Bigarren fase baten (2018ko urritik abendura bitartean), eurentariko 12 ikasle jarraitu genituen *Euskaraldia* 2018an parte hartu zuten bitartean, behaketa eta elkarrizketen bidez. Azkenik, hirugarren fase baten (2020ko azaroa-abenduan), ikasle horiek berriro elkarrizketatu ditugu haien prozesuan non dauden ikusteko eta eurekin ikerketa-proiektuko metodologiak mudantza egiteko eskaintzen dituen gakoak kontrastatzeko. Ikus Ortega, Goirigolzarri eta Amorrortu (2021) informazio gehiagorako. Ikerketa honi, eta komunitate epistemikoak lau urtean izan duen ikerketa-esperientziari “ikerketaren espazioa” deitu diogu.

Bigarren eta hirugarren espazioei dagokienez, azpimarratu behar da taldeak izan duen ikerketa-esperientzia ez dela isolatuta egon; ikerketaren espazioa deiturikoa beste biren barruan kokatuta baitago: unibertsitate barruan (DU eta BAM) eta Bilboren baitan. Gure aurreko ikerketa baten (Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri eta Urla 2016: 229) erakutsi zuen mudantza eginda zeukaten hiztun berrien artean %21ak esan zuela unibertsitatean egin zuela, neurri baten. Gainera, unibertsitate-eremua mudantza-une egokitzat hartu izan da beste hizkuntza gutxitu batzuen kasuan (Moralejo-Silva eta Ramallo 2019 galegorako; Puidgevall, Walsh, Amorrortu eta Ortega, 2018 katalan, irlandera eta euskararako). Horregatik, unibertsitatea mudantzarako espazio egokia izan daitekeela iritzita, ikasle batzuekin unibertsitatean sartu zirenetik ekintza-ikerketa partehartzailea egitea erabaki genuen, arestian esanda bezala, ikasle horiei espazio bat eskaintzeko mudantza egin zezaten. Beraz, ikerketaren espazioa “unibertsitatearen espazioa” deitu dugun horren barruan dago.

Era berean, DU eta BAM unibertsitateak Bilbon daude, espazio horrek (“Bilboren espazioa” izendatu dugunak) dakarren guztiarekin. Batetik, testuinguru erdalduna kontsideratzen da: euskaldun asko badaude ere (97.030 inguru, Eusko Jaurlaritzak 2020), ehunekoa ez da handia (%27

---

**Unibertsitatea mudantzarako espazio egokia izan daitekeela iritzita, ikasle batzuekin unibertsitatean sartu zirenetik ekintza-ikerketa parte-hartzailea egitea erabaki genuen, ikasle horiei espazio bat eskaintzeko mudantza egin zezaten.**

**Eraldaketari  
begira  
hausnarketa  
ezinbestekoa  
da: benetako  
hizkuntza-  
praktikak zeintzuk  
diren konturatzea,  
erabilerari  
begira gako  
mesedegarriak  
eta oztopoak zein  
diren [...] eta  
antzeko auziez  
gogoeta egitea  
funtsezkoa da  
kontzientzia  
hartzeko eta  
erabilera-patroiak  
aldatzeko.**

inguru) eta kalean oso gutxi erabiltzen da: %2 inguru (Soziolinguistika Klusterra, 2017). Bestetik, bigarren atalean aipatu denez, Bilbo sinbolikoa ere aintzakotzat hartu behar dugu: gazteen irudikapenetan gaztelania bakarrik erabiltzeko espazio gisa ageri da Bilbo, non hizkuntzen erabilerarako arau sozial argiak dauden eta euskararen erabilera zigortzen den.

Hurrengo lerroetan ikerketaren zein elementuk errazten duten mudantza-prozesua eta gazteak nola igarotzen diren ikerketaren espaziotik unibertsitatearen eta Bilboren espaziora erakutsiko da.

#### **4. IKERKETA-PROIEKTUAREN ELEMENTU GAKOAK**

Ikerketaren ezaugarri batzuk funtsezko suertatu dira gazteen mudantza-prozesuan (ikus. Ortega, Goirigolzarri eta Amorrortu, 2021). Lehendabizi, azpimarratu behar da ikerketaren helburua hizkuntza-praktiken eraldaketa dela, hau da, euskaraz aktibatzea. Gazteek euskararen erabilera areagotzeko nahia konpartitzen dute eta talde-helburu bezala hartu dute hizkuntza-praktiketan aldaketak ezartzea eta esperimentatzea, euskararen erabilera areagotzeko, nahiz eta bakoitzak konpromiso eta itxaropen maila desberdinak izan. Horretarako, ekintza-ikerketara partehartzailea egin da eta gazteak ikertzaile-kide hartu dira.

Ikerketa-proiektua hausnarketa soziolinguistiko kritikoa egiteko eta kontzientzia hartzeko espazioa izan da, non banaka eta taldean hausnartu den, esperientziak partekatu diren eta talde-dinamiketan ezagutza, denon artean, eraikitzen joan den. Eraldaketari begira hausnarketa ezinbestekoa da: benetako hizkuntza-praktikak zeintzuk diren konturatzea, erabilerari begira gako mesedegarriak eta oztopoak zein diren, zer den egingarria, zein ondorio daukan norberaren eta besteen jokabideak, zein aurreiritzi dauzkagun eta antzeko auziez gogoeta egitea funtsezkoa da kontzientzia hartzeko eta erabilera-patroiak aldatzeko. Eta arestian esanda bezala, gogoeta hori bakarka ez ezik taldean ere egin da. Alde horretatik, taldea, lankidetzeta eta *akonpainamendua* (Bucholtz, Casillas eta Lee, 2016) funtsezkoak izan dira, batez ere gazteek elkarri egin dioten *akonpainamendua*. Babesa honela eman diote elkarri: besteen esperientziak hobeto ulertzeko azalpenak eskaintzen, mingarriak diren antzeko bizipenak edo bizipen positiboak konpartitzen, taldekideak entzuten, enpatia erakusten. Azken batez elkarrekin ikasi, partekatu eta hausnartu dute, baita elkarrengandik ikasi ere.

## 5. IKERKETA BABESGUNE BEZALA

Ikerketa-proiektuak babesgune bezala funtzionatu du, euskaraz askatasunez eta epaituak direla sentitu gabe hitz egiteko espazio bezala; baina ez bakarrik hizkuntz-zuzentasunaren kezkatatik gazteak erlaxatu direlako, baizik eta, eta batez ere, euskararekiko eta bakoitzaren mudantza-prozesuarekiko zelan sentitzen diren askatasunez adierazteko espazioa izan delako. Horrela adierazi du hurrengo ikertzaile-kideak:

(1) Niretzako alde batetik zuk esan duzuna, osea, argi eta garbi, elkarrekin hausnartzea, bizipenak, sentimenduak, sentimenduak elkarbanatzea... (...) Espazio seguru bat, esateko “lotsa sentitzen dut, beldurra sentitzen dut”, dena delakoa (...). Sentitu nintzen babestu moduan. Niri gertatu zait, ta besteei ere bai. (DU-Maider, F3-Elk1: 159)<sup>2</sup>

Emozioak askatasunez adierazteaz gain, besteekin konpartitzea, taldean jardutea, bereziki estimatu dute gazteek eta ikerketa babesgune hartzerakoan garrantzi handia eman diote, Maiderrek azpimarratu duen bezala:

(2) Niretzako gakoetako bat da dena kolektibizatzea. Indibidualismotik pasatzea kolektibora. Zeren hori da beti egiten duguna. Super indibidualak gara eta ni nengoen nire euskararen rolloarekin eta niretzako, hasiko gara elkarbanatzen. Hitz egingo dugu besteak zelan sentitzen diren. Eta seguru denen artean gehiago egin ahal dugula. Eta ikerketan esparru horiek ematea, esparru seguru bat, jakinda ez ginela epaituta sentituko, eta ariketa hori egitea: nik besteak ez epaitzea, besteak ni ez epaitzea... hori izan zen niretzako oso inportantea. (DU-Maider, F3-Elk1: 255)

Talde kideek ikerketaren helburua, lankidetzeta eta sentimenduak eta esperientziak konpartitzea, bere egin dute eta horrek lagundu die epaituta ez sentitzen, aldaketak edo esperimentazioak probatzen eta hausnarteta konpartitua egiten, beti taldearen babespean.

Hori horrela izanik, komeni da babesgunearen, espazio seguruaren, kontzeptua problematizatzea eta ez ikustea kategoria dikotomiko eta estatiko bezala, *espazioa-segurua-da*, ala *ez-da* zentzuan (The Roestone Collective, 2014). Alde batetik, azpimarratu behar da babesgunea “egin egiten” dela, eta, beraz, landu daitekeela. Hala, ikerketaren hasieran “tentsioa”, “isiltasuna”, azken batez deserosotasuna eta insekuritatea egon ziren arren, denon artean apurka-apurka espazio seguru egin dutela. Lehen batzarretan ikerlari trebatuagook jaso genituen behaketa

***Ikerketa-proiektuak babesgune bezala funtzionatu du, euskaraz askatasunez eta epaituak direla sentitu gabe hitz egiteko espazio bezala.***

**Esperimentazioa  
“ikerketa” bezala  
planteatu izanak  
presio gehiago  
ipini zuen gazte  
batzuen  
hasieran, euren  
ikerlari erro-  
la oso serio bere  
egin zutelako,  
eta horrek ere  
urduritasun-puntu  
bat gehitu zuen  
hasieran.**

oharretan argi ageri da giroa tentsoa zela, urduritasuna eta isiltasuna zirela nagusi, baina dinamiketan aurrera joan ahala gazteak erosoago egon direla erakusten duten “giro ona”, “taldea lasaiago”, “distentsioa”, “fluidotzen” moduko terminoak aurkitzen ditugu Fase 1eko behaketa-koadernoetan. Gazteek eurek ere ikerketaren balorazioa egiterakoan garbi adierazi digute hasieran sentitzen zuten urduritasun eta lotsa gero deseustatu direla:

(3) Hasieran pixka bat kohibituta sentitzen zara ez dituzulako beste pertsonak ezagutzen, baina gero ja pixka bat zabaltzen zara eta bai egia dela, lotsa gutxiago duzula, gauza gehiago esan ditzakezula, eta ez zaudela hain urduri, ezta? Ikerketa batean zaudete eta normala da, baina ez zagoz hain urduri. Ja pixka bat lasai-lasai zoaz, eta horrek hobetzen laguntzen du, ze lasai bazagoz, gauza gehiago esan ditzakezu eta aberatsagoa izan daiteke guztia. (BAM-Ander, F3-Elk6: 128)

Gogoratu behar da komunitate epistemikoa ikerketarako beren-beregi osatu zela, gehienek ez zutela elkar ezagutzen eta denek euren mudantza-prozesuan aurrerapausoak eman nahi bazituzten ere, egoera ezberdinean zeudela: batzuk eta besteak abiapuntu ezberdina zuten, ez zuten sentitzen hizkuntza-gaitasun bera zeukatenik, ez ziren euren aldaerarekiko eroso sentitzen modu berean, ez zituzten emozio berak sentitzen euskara-erabilera edo erabilera-ezarekiko, eta ez zituzten espektatiba berberak. Azken finean, autoestimua aldetik askotariko hiztunak egon ziren, gaitasun mugatuko hiztunetatik ia euskaraz bizi diren herrietako euskaldunetara. Honek denak zaurgarritasun egoera ezberdinean ipintzen zituen gazteak eta, beraz, espazioak ezin izan die babes-maila bera eskaini guztiei.

Gainera, Anderrek aipatzen duen moduan, esperimentazioa “ikerketa” bezala planteatu izanak presio gehiago ipini zuen gazte batzuen hasieran, euren ikerlari erro- la oso serio bere egin zutelako, eta horrek ere urduritasun-puntu bat gehitu zuen hasieran.

(4) Nik uste dut igual niri behin edo bitan gertatu zitzaidan, azkenean, ikerketa batean zaudela jakitea, da pixka bat, zuretzako motibagarria da, baina era berean, pixka bat beldurra ematen du, ezta? Azkenean ikerketa handia da eta pentsatzen duzu: “ez daramat ezer, zer gertatuko da? ez dut ezer esango, txarto geratuko naiz hauen aurrean”. Horrelako galderak egiten dizkiozu zure buruari. Orduan, ikerlariok, gure kasuan eske hasi ginanean 18 urte genituen, lehenengo mailan geunden, unibertsitatean hasi berriak, ez dakit zer, proiektu

bat, dena etorri zen bapatean, ezta? Eta horrek igual sortzen du, motibatzea alde batetik, baina era berean desmotibatzea, ze beldur horrek igual eragiten du, esaten duzu konpromezu handiegia da, utziko dut nahiz eta jakin egin dezakezula, eta hori, batez ere beldur hori nik izan nuen batzuetan, nahi nuen hor egon eta *callo*-a eman nahi nuen, baina ez nekien nola, edo ez zitzaidan ateratzen nahi nuen moduan, eta pertsona batzuei horrek eragin diezaieke desmotibazioa edo pentsatzea txarto geratuko direla. / Igual pentsatzen nuen, “hau pentsatzen dut baina ez dut esango, ez da beharrezkoa esatea”, nahiz eta aberasgarria izan, batzuetan horrek eragiten zuen gauza batzuk ez esatea, ezta? Eta azkenean, bueno, erlazioa pixka bat hobetu genuen, bueno hobetu, ez dakit nola esan, gehiago erlazionatu ginen eta gauzak esan ahal zenituen era irekian eta lasai-lasai, eta horrek lagundu zuen. (BAM-Ander, F3-Elk6: 111/133)

Beste aldetik, azpimarratu behar da, baita, babesgune kontsideratzen dugun ikerketaren espazioa, behin hasierako deserosotasuna gaintuta ere, aldi berean dela segurua eta ez-segurua, ikerketaren diseinuagatik beragatik. Espazio segurua da, giro adiskidetsuan, enpatia eta taldearen akonpainamendua bilatzen den giroan ahalbideratzen duelako esperientziak eta emozioak partekatzea, hiztunaren birposizionamendua gauzatzea eta praktiketan aldaketak egitea. Baina aldi berean espazio ez-segurua da, gazte batek esan duen bezala, “konfort-zonatik” kanpo ipintzen duelako hiztuna; gogoeta-prozesuak eta praktika berrien esperimentazio-prozesuak deseroso sentiarazi dezake pertsona.

Azkenik, espazioa benetan babesgunea izan dadin konfiantza eta taldean gustura sentitzea horren garrantzitsua izanik, batek galdetu dezake ez ote den egokiagoa mudantza-prozesuak sustatzeko esperimentazio hau beren-beregi sortutako komunitate epistemiko batekin egin ordez praktika-komunitate (Eckert eta McConnell-Ginet, 1992) edo talde “natural” batekin egitea. Izan ere, praktika-komunitatea asko erabiltzen da mudantza-prozesuak bultzatzeko (Hernández eta Altuna, argitaratze bidean, eta Hernández, Iñarra eta Altuna, 2021, zenbaki honetan bertan). Talde mota biren kasuan partaideek euskararekin konpromiso bat partekatzen duten komunitate bat osatzen dute eta taldearen indarra ukalezina da; partaideak eta euren ikasketa-prozesua erdigunean ipintzen dira. Baina egoera edota pertsonaren arabera egokiagoa izan daiteke bat ala bestea erabiltzea. Gure partaide Larraitz eta Anderrek ikuspegi ezberdina dute auzi honen inguruan: “Taldea naturalean errazago litzateke?” galdera egiten zaienean, lehenak ad hoc eratutako komunitate epistemikoa hobesten duen bitartean, bigarrenak talde naturalaren alde egiten du.

---

***Azpimarratu behar da, baita, babesgune kontsideratzen dugun ikerketaren espazioa, behin hasierako deserosotasuna gaintuta ere, aldi berean dela segurua eta ez-segurua, ikerketaren diseinuagatik beragatik.***

**Ikerketaren  
espazioak gazteek  
sozializazio  
berriak izatea  
ahalbideratu du.  
Bilbo inguruko  
gazteek “euren  
moduko”  
hiztunak aurkitu  
dituzte, eta eurek  
izan dituzten  
esperientzia  
antzekoak, edo  
ezberdinak,  
dituztela ikusi  
dute.**

(5) -Nik uste dut ezetz... Nik uste dut azken finean guztiak ezagutzen badituzu, besteen bizitza ere ezagutzen duzu, eta batzuetan zuk zeuk ez duzu zerbait esango zure lagunek jada badakitelako, edo zure lagunek zure ideia bat dute eta baliteke zuk esaten duzu hori, zure lagunek duten ideia horretatik zu ateratzea eragin dezakeelako, edo ez dakit, nik uste dut beste pertsona batzuekin zaudenean, zu ezagutzeko, zuk esaten duzu nahi duzuna eta besteek ez dute ideia bat zutaz, orduan esaten duzu nahi duzuna eta konfidantza guztiarekin, inork ez du pentsatuko ezer zutaz, ze ez zaituzte ezagutzen, bai izan daiteke lotsaren gauza hasieran, ez duzuelako elkar ezagutzen, baina zerbait egin daiteke ezagutzeko, baina igual ba Kafe Antzokian egin zena [F1 amaitutakoan denok batera bazkari bat egin genuen], igual egin hasieran, mundu guztia elkar ezagutzeko eta gero horretatik abiatuta, ba ikerketarekin jarraitzea, eske guztiak ezagutzen badituzu... buff! ez dakit, nire pertzepzioa da... (BAM-Larraitz, F3-ELK6: 137)

-Ni Irenerekin ados nago, baina nik uste dut, taldearen arabera, ondo atera daitekeela. Konfiantza izatea gauzak esateko, ere, ona izan daiteke. Azkenean, beste pertsonak ezagutzea, esan nahi dut bata eta bestearen ideiak konplementatzea. (BAM-Ander, F3-Elk6: 138)

Bai Larraitz bai Anderrek esaten duten bezala, berebiziko garrantzia dauka partaideen arteko konfiantzak eta hasieran taldekideek, ezezagunak izateagatik, deserosotasun-puntu bat izan badute ere, denon artean, taldekako lanketak aurrera egin ahala, konfiantza hartzen eta eroso sentitzen joan dira euren bizipenak, kezkak eta sentimenduak konpartitze-ko, elkarri laguntzeko eta erabakiak hartzen joateko. Zentzu horretan ez dago zalantzarik ikerketak babesgune bezala funtzionatu duena.

## 6. IKERKETA ZUBI-ESPAZIO BEZALA

Ikerketaren espazioak gazteek sozializazio berriak izatea ahalbideratu du. Bilbo inguruko gazteek “euren moduko” hiztunak aurkitu dituzte, eta eurek izan dituzten esperientzia antzekoak, edo ezberdinak, dituztela ikusi dute. Ikerketa egin aurretik gehienek oso urrun sentitzen zituzten “herrietako euskaldunak” ere ezagutu dituzte, eta denon bizipenak eta sentimenduak konpartitzerakoan ikaskuntza berriak izan dituzte. Horrela, ikerketaren espazioan beren aurretiko ezagutza, sinesmen eta aurreiritziak *deseraikitze*ko aukera izan dute: adibidez, unibertsitatearen espazioan parte hartuz behaketa-jarduera bat egin ondoren konturatu dira euskaraz askoz pertsona gehiagok dakiela eta prest dagoela egiteko, edo ez dela egia “Bilbon inork ez duela euskaraz hitz egiten”. Uni-

bertsitatearen espazioa eta Bilboren espazioa ikerketaren hasieran ez bezala sumatzen dituzte orain eta ikaskuntza berri horiek mudantza beste espazioetara eramaten laguntzen die.-

(6) Lehen ez nuen erabiltzen eta orain eske, euskara gaztelania baino askoz ere gehiago erabiltzen dut. Eta nik uste dut, dena hasi zela, pasa den urteko ikerketarekin, hausnartzen genuela honen inguruan, zelan aurre egin, zein oztopo genituen euskararekin eta abar, ba horrela hasi nintzen erroka hori, euskara erroka hori sartzen eta zelan beldur horiei aurre egin eta hori izan da niretzat pertsonalki ba formakuntza bat edo (...). Zapatuan irten ginen juergan eta be bai denbora osoan nire kuadrilakoekin euskeraz. Eta... egunean egiten dudana gaztelara momentu bakarra da autoeskolako irakaslearekin eta pentsatzen dut “Ze arraro”, momentuko, gaztelera, momentu hori da bakarra, “*Qué raro*”, eta orain dana euskeraz. (DU-Amaia, F2-PostElk: 38)

**Unibertsitatearen espaziora ez ezik Bilboren espaziora ere eraman ahal izan du aldaketa, ia erabateko mudantza eginez momentu horretan, bai bere subjektibitatean eta euskararekiko posizionamenduan bai bere hizkuntza-praktiketan.**

Bigarren fasean Euskaraldia ostean elkarrizketatu genuenean, Amaiak lehen fasean izandako esperientzia ahalduentzeko “formazioa” izan zela esan zigun: berarentzat ikerketa hausnarketa egiteko, aldaketak probatzeko eta beldurra kentzeko espazioa izan da, eta horri esker gauza izan da bere praktika berriak beste espazio batzuetara eramateko. Bere kasuan, unibertsitatearen espaziora ez ezik Bilboren espaziora ere eraman ahal izan du aldaketa, ia erabateko mudantza eginez momentu horretan, bai bere subjektibitatean eta euskararekiko posizionamenduan bai bere hizkuntza-praktiketan.

Beste gazte batzuk ere ikerketaren espaziotik beste espazioetara pasatzeko aukera izan dutela adierazi digute, eta horrekin hizkuntza-gaitasuna hobetu dutela:

(7) Neu ikerketan gebizarian (...) ba gero hori parte hartzen gengozela ta... egixa esan, ez dakit, momentu horretan hasi nintzan aldaketatxuak eitten bizitzan ta nik uste dot aldaketa nahiko in dodazela, ta txikixak baina asko. Da oso pozik nao egixa esan. Bikoteagaz harreman hizkuntza aldatu. Klasekideekaz euskara askoz gehiago mantendu. Ondorioz gaitasuna, erraztasuna lortu. (DU-Leire, F2-PreElk: 4)

Beste gazte batzuk mudantza ahulago bat egin dute, urrats txikiago bat, harreman-sareren batean bakarrik, adibidez, ikerketa-kideekin edo ikaskideren batekin, baina ez dira gai izan espazio gehiagotara eramateko eraldaketa. Eta bakar batzuk hausnarketa-prozesua baino ez dute egin, “barneko mudantza”, aldaketa bat bizi izan dute beren subjektibo-

**Planteamendu  
honetan  
hizkuntza-  
praktikak  
aldatzea  
norbanakoaren  
erantzukizun  
bezala  
kontsideratu  
ordez,  
talde-praktiketan  
hezurmamitzen  
dela  
azpimarratzen  
da, argia gizarte-  
harremanetan  
ipiniz.**

tasunetan, itxaropenetan, edo konturatu dira mudantza posiblea dela, nahiz eta praktiketan aldaketa txikia izan duten.

(8) Inoiz ez ginateke saiatuko gure ohiturak aldatzen, eta lan honetatik abiatuta, saiatu gara *comfort zone* uzten eta beste zerbait egiten saiatzen. Nik nire kasuan ez dut lortu, baina saiatu naiz, eta igual, duela bi edo hiru urte, ez nuke denborarik galduko saiatzen. Orain badakit, ez dut lortu, ez dut lortu... zeren Euskaraldia zenean, nituen lagunak nekatuta nitaz, baina nengoelako momentu horretan, jo, belarriprest... eta nekien haiek euskaraz zekitela baina klaro, ez zitzaien ateratzen eta "ez diet ezer esango, ze klaro, jode", aguantatu ninduten. Pauso hori ez nun lortu baina nire pentsatzeko era utzi dut alde batera eta saiatu naiz, orduan nik uste dut hori izan dela. (BAM-Larraitz, F3-Elk6: 99)

Larraitzi ikerketaren espazioak euskararen erabilera beste espazio batzuetara hedatzeko balio ez badio ere, bere barnean mugitu egin da. Barneko mudantza hori etorkizunean ernatu daitekeen hazia izan daiteke.

## 7. ONDORIOAK

I

Artikuluaren erakutsi den bezala, espazioak berebiziko garrantzia dauka mudantza-prozesuetan. Planteamendu honetan hizkuntza-praktikak aldatzea norbanakoaren erantzukizun bezala kontsideratu ordez, talde-praktiketan hezuramamitzen dela azpimarratzen da, argia gizarte-harremanetan ipiniz. Ikerle-kide gazteekin lortutako emaitzek argi erakutsi dute eraldaketa gauzatzeko, ikerketaren espazioak lagundu diela bai euren subjektibotasunean bai hizkuntza-praktiketan euskararen aldeko aldaketak egiten eta horretarako taldearen lankidetzeta eta konplizitatea ezinbestekoak direla.

Proiektuan erabilitako ekintza-ikerketaren partehartzailearen metodologia eta beren-beregi sortutako komunitate epistemikoa tresna ezin hobeak izan dira hausnarketa soziolinguistikoko kritikoa garatzeko eta praktika berriak probatzeko. Gainera, proiektua taldean egiteak indarra eman die gazteei, ikerle-kideen akonpainamendua bitartekoa dela. Zentzu horretan, ikerketaren espazioak babesgune bezala funtzionatu du: gazteak ez dira epaituta sentitu; alderantziz, euren bizipenak konpartitzeko eta sentimenduak taldean adierazteko askatasuna nagusitu da euren artean; prozesuan indartu dira, euren mugak gainditzeko estrategiak garatu dituzte eta kasu askotan ahaldunduta sentitu dira. Gainera, askok ikerketaren espazioa zubi-espazio bezala erabili dute euskarazko

hizkuntza-praktikak beste espazio batzuetara eramateko, hala nola, lagunartera, familiara edo bikotekide-harremanera.

Azkenik, gazteen aktibazioa lortzeko, eta bereziki euskara erabiltzeko aukera gutxi dagoen testuinguruetan, ezinbestekoa da babesguneak sortzea, hemen ezagutarazi den moduko esperientzia positiboak bul-tzatzeko. Beharrezkoa da babesgune horietan hizkuntza-zuzentasun aldetiko arauak erlaxatzea eta gazteak euskara erabiltzea “normala” edo ez-markatua dela antzematea; baina hori ez da nahikoa. Aurkeztu dugun proiektuak erakutsi duenez, gazteek benetako eraldaketa egin dezaten, lanketa bat egin behar da, euskara eta hizkuntza praktiken inguruan hausnartu behar dute eta praktikan aldatetako egiten, taldean eta eroso sentituta, saiatu behar dute. Ezinbestekoa da parte hartzen duten gazteak euskara gehiago erabiltzen saiatzeko prest egotea, neurri eta modu ezberdinean bada ere: batzuk benetako eraldaketa handia izango dute helburu eta beste batzuk, agian, “euskara ez galtzea”, baina zelanbaiteko interesa izanez gero, denek izan dezakete aukera holako babesgune baten eraldaketa-prozesu bat bizitzeko, hizkuntza-praktiketan aldateta handirik ez badute ere, euskararekiko posizionamenduan behintzat. Gazteek eurek inizatiba hartu eta proiektuen diseinuan esku zuzena hartuz gero esperientzia arrakastatsuak izateko aukerak biderkatzen dira. Espero dugu proiektu honetan ikasitakoak gazteen aktibazioa bilatzen duten ekimenetan lagungarri izatea. ●

**Gazteek eurek inizatiba hartu eta proiektuen diseinuan esku zuzena hartuz gero esperientzia arrakastatsuak izateko aukerak biderkatzen dira.**

## Erreferentzia bibliografikoak

- AMORRORTU, E., ORTEGA, A. eta GOIRIGOLZARRI, J. (2017). “Euskararen hiztun aktibo bihurtzeko gakoak”. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 104(3), 11-49.
- BARINGO, D. (2013). “La tesis de la producción del espacio en Henri Lefebvre y sus críticos: un enfoque a tomar en consideración”. *Quid 16. Revista del Área de Estudios Urbanos*, 3, 119-135.
- BUCHOLTZ, M., CASILLAS, D.I. eta LEE, J.S. (2016). “Beyond Empowerment: Accompaniment and Sociolinguistic Justice in a Youth Research Program”. In Lawson & Sayers (Ed.), *Sociolinguistic Research: Application*

- and Impact*. New York eta London: Routledge. 25-44.
- DEL VALLE, T. (2001). "Asociacionismo y redes de mujeres ¿Espacios puente para el cambio?". *Anuario de hojas de Warmi*, 12, 131-151.
- ECKERT, P. eta McCONNELL-GINET, S. (1992). "Think Practically and Look Locally: Language and Gender as Community-Based Practice". *Annual Review of Anthropology* 21(1): 461-490.
- ESTALELLA, A. eta SÁNCHEZ-CRIADO, T. (arg.) (2018). *Experimental collaborations: Ethnography through fieldwork devices*. Berghahn.
- EUSKO JAURLARITZA (2020). VI. Mapa Soziolinguistikoa 2016. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- GREENWOOD, D. J. eta LEVIN, M. (2006). *Introduction to action research: Social research for social change*. London: SAGE.
- HERNÁNDEZ, J.M. eta ALTUNA, J. (argitaratze bidean). "Talking is teamwork: Communities of practice and adolescent new speakers in the Basque Country". *Journal of Multilingual and Multicultural Development*.
- HERNÁNDEZ, J. M., IÑARRA, M. eta ALTUNA, J. (2021). "Babesguneak: euskal hiztun gazteak aktibatzeak aukera". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 120, 47-72.
- MORALEJO SILVA, R. eta RAMALLO, F. (2019). 'Las condiciones del (pre) falantismo y el proceso de conversión lingüística en Galicia'. In: Ramallo, F., Amorrortu, E. eta Puigdevall, M. (Ed.), *Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español*. Madrid eta Frankfurt: Iberoamericana-Vervuert. 165-183.
- O'ROURKE, B. eta WALSH, J. (2020). *New Speakers of Irish in the Global Context. New revival?* New York eta London: Routledge.
- ORTEGA, A., GOIRIGOLZARRI, J. eta AMORRORTU, E. (2021). "Participatory Action Research to Promote Linguistic Mudes among New speakers of Basque: Design, Benefits and Challenges". *Journal of Multilingual and Multicultural Development*. DOI: 10.1080/01434632.2021.1968877.
- ORTEGA, A., AMORRORTU, E., GOIRIGOLZARRI, J. eta URLA, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.
- PUIGDEVALL, M., COLOMBO, A. eta PUJOLAR, J. (2019). "Espacios de adopción del catalán, una aproximación etnográfica a las mudas lingüísticas en Cataluña". In: Ramallo, F., Amorrortu, E. eta Puigdevall, M. (Ed.), *Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español*. Madrid eta Frankfurt: Iberoamericana-Vervuert. 111-130.
- PUIGDEVALL, M., WALSH, J., AMORRORTU, E. eta ORTEGA, A. (2018). "I'll be one of them': Linguistic mudes and new speakers in three minority language contexts." *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 4(3), 1-13.

PUJOLAR, J. eta GONZÁLEZ, I. (2013). “Linguistic *mudes* and the de-ethnization of language choice in Catalonia”. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism* 16(2): 138-152.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2017). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa*. *Euskal Herria*. 2016. [https://soziolinguiстика.eus/files/hekn2016\\_eu\\_1.pdf](https://soziolinguiстика.eus/files/hekn2016_eu_1.pdf)

THE ROESTONE COLLECTIVE (2014). “Safe space: Towards a Reconceptualization”. *Antipode*, 46(5), 1346-1365.

## **OHARRAK**

1. Artikulu honek “Euskal hiztun aktibo bilakatzen” (Hizkuntza Politika Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza), ‘El neohablante como sujeto social-NEOS’ (Espainiako Gobernua, FFI2016-76869-P) eta ‘Procesos de transformación sociolingüística en el contexto vasco: hablantes, prácticas y agencia (EquiLing-País Vasco) (PID2019-105676RB-C42 / AEI / 10.13039/501100011033) ikerketa-proiektuaren emaitzen berri ematen du. Auto-reak DU-Euskal Gaiak, Deusto Gizarte Balioak (IT725-13) eta ELEBILAB (IT983-16 – GIC 15/129) ikerketa-taldeetako kideak dira, hurrenez hurren. Proiektu honetan parte hartu duten 22 ikerlari gazte eta Iñigo Beitiari eskerrak eman nahi dizkiegu, ezinbestekoak izan baitira datu bilketa eta analisisian.

2. Partaideen konfidentzialtasuna gordetzeko ezizenak erabili dira. Bestalde, gaztea DU ala BAMEko ikaslea den, zein fasetan jaso den aipua eta transkripzioetan non aurkitu dezakegun adierazi da.